


AÑORGAKO MONOLITOA
F MAILA
AÑORGA HIRIB, Z.G.

Egilea eta data: Juan Dominguez; 1946
Deskribapena

monolitoa idulki txiki baten gainean dago kokatuta, Añorgako futbol zelaiaren harmailen erdialdearen atzeko aldean. Monolitoak aurrealdean "Cementos Rezola" errotulua du, tamaina handiko letra larriz bertikalean idatzia, eta hondoa hutsa du, segur aski bere garaian argiztapen sistema bat izango zuen. Errotulu horren gainean idi begi txiki bat dago, eta bertan aingura bat dago txertatuta, enpresa horren sinboloa. Atzealdean barne eskailera batera sartzeko ate bat dago. Eskailera horrek monolitoaren goialdera igotzeko aukera ematen du. Goialdean banderaren masta dago, baita, gaur egun, futbol zelaia argitzen duten fokuak. 11 metro inguruko altuera du.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen F babes mailan sartzarekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babestu gabeko elementuak: monolitoaren barrualdea; fokuak; errotulua.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: hormigoizko kanpo elementuak.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.